

# Ireki da Euskadiko nekazaritzako elikagaien sektoreko lankidetzarako 2017ko diru-laguntzak eskatzeko epea- EJ 2017

**Eusko Jaurlaritzak 3,4 milioi euro jarriko ditu nekazaritzako elikagaien arloan lankidetzaproiektu berritzaileak sustatzeko.**

**Gaur, 2017ko uztailaren 12an, 2017ko lankidetzarako diru-laguntzen deialdia argitaratu da,** funtsen FEADER Europako Araudian eta Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020 Programan (OSOA) aurreikusitako moduan.

**Diru-laguntza horien helburua da berrikuntza, lankidetzeta eta ezagutzaren garapena sustatzea landa-eremuetan;** horretarako, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak diseinatutako Berrikuntza eta Lankidetzeta Estrategia Biziaren (EVIC (<http://www.euskadi.eus/aurkezpena-berrikuntza-lankidetzeta-estrategia/web01-a2nekber/eu/>)) printzipioak betetzen dituzten proiektuak finantzatzeko dira.

Hona hemen diru-laguntzen zenbait ezaugarri:

- Diru-laguntzak ez dira itzuli beharko.
- Urtebete edo gehiago egongo da proiektua gauzatzeko.
- Gutxienez bi erakundek parte hartu beharko dute, eta horietako batek nekazaritzako elikagaien sektoreko balio-katekoa izan beharko du.
- Proiektu-idea baten inguruan taldeak eratzeko interesa izan dezaketen sektoreko eragile guztientzat dira: enpresak, ikerketa-zentroak, landa-garapenerako elkarteak, kudeaketa-zentroak, fundazioak, etab.
- Hilabete dago eskaerak aurkezteko: uztailaren 13tik abuztuaren 13ra.
- Diru-laguntzen kudeatzailea Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza izango da.

## 2017ko ekitaldian 70 proiektu inguru aurkeztuko dira.

Diru-laguntza hauek iragartzen diren hirugarren urtea da aurtengoa. 2015 eta 2016 artean, 51 proiektu babestu dira, eta guztira ia lau milioi euroko finantzaketa jaso dute. Proiektuek askotariko helburuak izan dituzte: Idiazabalgo jatorri-deitura duen esnea biltzeko sistema optimizatzea; Euskal Sagardoaren kupelak monitoritzatzeko teknologia-berrikuntzak egitea; haragi-hondakinei balioa ematea intsektu-larbak hazteko erabilita...

2017ko ekainaren 28ko Agindua, Ekonomiaren Garapenerako eta Azpiegituretako sailburuarena, 43/2017 Dekretuan aurreikusitako lankidetzarako laguntzak emateko 2017. urterako deialdiaren oinarriak onartzen dituena (<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/07/1703500e.pdf>)

Lankidetzarako laguntzen gastuak kudeatu eta justifikatzeko eskuliburua

([http://www.euskadi.eus/contenidos/ayuda\\_subvencion/kooperazioa\\_2016/eu\\_def/adjuntos/Manual%20Gestion%20Cooperacion%202016\\_eus.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/ayuda_subvencion/kooperazioa_2016/eu_def/adjuntos/Manual%20Gestion%20Cooperacion%202016_eus.pdf))

Orientazio-gida ([http://www.euskadi.eus/contenidos/ayuda\\_subvencion/kooperazioa\\_2016/eu\\_def/adjuntos/Gida\\_lankidetzarako\\_laguntzak.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/ayuda_subvencion/kooperazioa_2016/eu_def/adjuntos/Gida_lankidetzarako_laguntzak.pdf))

Lankidetzarako laguntzei buruzko informazio-jardunaldiko hitzaldiak (17/06/26) (<http://www.euskadi.eus/informazioa/lankidetzarako-2017ko-laguntzei-buruzko-informazio-jardunaldiko-ponentziak/web01-a2nekber/eu/>)

EUSKO JAURLARITZAREN INFORMAZIO OSOA ([http://www.euskadi.eus/web01-a2nekaza/eu/contenidos/ayuda\\_subvencion/kooperazioa\\_2017/eu\\_def/index.shtml](http://www.euskadi.eus/web01-a2nekaza/eu/contenidos/ayuda_subvencion/kooperazioa_2017/eu_def/index.shtml))  
ELIKA: Granja Modelo, 29 . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .  
[berri@elika.eus](mailto:berri@elika.eus) (mailto:berri@elika.eus)